

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko apirila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
2. Langabezia erregistratua
3. Inflazioa
4. PMI konposatua
5. Enpleguaren igurikimenak
6. ELGEko aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %6,7 haziko da aurten eta %5,7 datoren urtean

Urte horietan, enpleguak %4,9 eta %3,2 egingo du gora, hurrenez hurren.

2. Martxoan langabeziaren igoera nabarmen apaldu zen.

Otsaileko %10,1eko hazkundearen ondoren, martxoan %1,4 bakarrik hazi zen.

3. Argindarraren prezioak KPIaren igoera baldintzatzen du.

Urtarrileko igoeraren ostean, otsailean nabarmen egin zuen behera prezioak.

4. Ekonomia jarduera berriro aktibatu da Eurogunean.

Bost hilabete geroago, martxoan, PMI konposatua 50 puntuen gainetik kokatu zen berriro.

5. Enpleguari buruzko igurikimenak nabarmen hobetu dira martxoan.

Hala eta guztiz ere, oraindik ezkortasun txiki bat nabaritzen da aldagaian.

6. ELGEk txertaketa erritmoaren mende jartzen du susperraldia.

Nabarmen hobetu da munduko ekonomiarentzat aurten espero duen hazkundera.

7. Hilabeteko laburpena.

Goranzko berrikusketa munduko ekonomiarentzat.


AURREIKUSPEN BERRIAK

EAEko ekonomia %6,7 haziko da aurten eta %5,7 datorren urtean

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2021
%6,7




Behin laugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoak eta inguruneko aldagai nagusiak ezagututa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021-2022 aldirako aurreikuspenak eguneratu ditu. Aurreikuspen berri horren arabera, EAEko ekonomia %6,7 haziko da aurten, hau da, abenduan espero zena baino ia bi puntu gutxiago. Beheranzko zuzenketa horren arrazoi nagusia birusaren kutsatze olatu berriak agertu izana da, eta horrek suspertzeko prozesua atzeratu du.

Eszenategi makroekonomiko berrian, EAEko ekonomiak %2,5eko urte arteko jaitsiera izango du lehen hiruhilekoan eta horri %17,8ko errebote ezohikoa jarraituko dio. Hazkunde hori murrizketak oso zorrotzak izan ziren eta jarduera ekonomikoa oso murriztua izan zen 2020ko hiruhilekoarekin alderatzen delako lortzen da. Une horretatik aurrera, urte arteko tasak sendoak izango dira, baina txikiagoak. Oro har, 2022an EAEko BPGa %5,7 haziko da, urtean zehar erritmoa nabarmen motelduz.


AZKEN KONTSUMOIA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Eszenategi berrian, industriak gainerako sektoreek baino susperraldi azkarragoa izango du; aurten, %8,3ko hazkundea izango du, eta pixkanaka motelduko da, 2022ko laugarren hiruhilekoan balio apalagoetan kokatu arte. Zerbitzuen bilakaera lauagoa izango da: denbora gehiago beharko du indarra hartzeko, baina epe luzeagoan iraungo du. Horrela, datorren urteko laugarren hiruhilekoan bere balio erantsia %3,1 igoko da eta une horretako sektorerik dinamikoe-na izango da.

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostuak nabarmen handituko dira aurreikusitako bi urteetan, eta, bi urteetan, 2020an baino 70.000 inguru gehiago izango dira. Hala ere, ez da nahikoa izango 2020an galdu ziren 80.000 enpleguak berreskuratzeko. Langabezia tasa oso gutxika jaitsiko da eta 2022 amaieran %9,3an kokatuko da.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza atsa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Martxoan langabeziaren igoera nabarmen apaldu zen


Martxoan, 130.021 pertsona zeuden lanik gabe EAEn; beraz, urtetik urterako aldakuntza tasa otsaileko %10,1etik martxoko %1,4ra igo zen. Hileko horretako datua bereziki garrantzitsua da, iazko martxotik aurrera gertatu baitzen joera aldatuta, pandemiaren hasieraren ondorioz. Enpleguari eusteko hainbat neurri hartu ziren arren,

ezin izan zen saihestu langabeziak gora egitea, eta zifra handiena irailean iritsi zen. Hurrengo hilabeteetan, kopuruak behera egin zuen etengabe, eta, aurreikuspenen arabera, jaitsiera hori finkatu egingo da, betiere txertoaren hedapena egitate bat bada, eta, beraz, lan merkatuan bultzada nabarmena ematea ahalbidetuko luke.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. MARTXOA

%1,4



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Beste behin ere, aurreko hilabeteetan bezala, ehun ekonomikoak erresistentziarako gaitasun handia erakusten jarraitu zuen, batez ere jarduera ekonomikoari murrizketa txikiagoak ezarri zitzaizkiolako. Hobekuntza erlatiboa sektore guztietan ikusten da. Horien artean, eraikuntzaren eta industriaren bilakaera nabarmendu behar da, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak izan baitituzte, hau da, beraie-

tan langabezia jaitsi egin da (-%3,9 eta -%2,1, hurrenez hurren). Beste aldetik, aldeko bilakaera erakutsi zuen arren, zerbitzuen sektorea izan zen tasa negatiborik jaso ez zuen bakarra, %0,6ko balio positiboan kokatu baitzen; izan ere, beste arrazoi batzuen artean, autonomia erkidegoen artean gaur egun dagoen mugikortasun debekuak kalte egin dio.

LANGABEAK

	2020ko martxoa	2021eko martxoa	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	128.213	130.021	1.808
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	21.448	21.898	450
Bizkaia	72.668	73.559	891
Gipuzkoa	34.097	34.564	467
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	57.178	57.738	560
Emakumeak	71.035	72.283	1.248
25 urtetik beherakoak	9.589	11.078	1.489
25 urte baino gehiago dutenak	118.624	118.943	319
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.694	2.804	110
Industria	15.362	15.037	-325
Eraikuntza	8.793	8.454	-339
Zerbitzuak	86.809	87.362	553
Lehenago lan egin dutenak	113.658	113.657	-1
Lehenago lan egin ez dutenak	14.555	16.364	1.809
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	20.714	21.123	409


Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

Argindarraren prezioak KPIaren igoera baldintzatzen du

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko urte arteko inflazioak, urtarrilean izandako gorakadaren ostean, %0,3ko tasa izan zuen otsailan, aurreko hilean baino hiru hamarren gutxiago. Erregaien gorakada elektrizitatearen prezioek izan zuten beheranzko joerarekin orekatu zelako gertatu zen apaltze hori. INEk martxoan Estaturako aurkeztu duen aurrerapenak pentsarazten du hilabete horretan kontrako mugimendua gertatuko dela eta KPI indizeak igoera bizia ezagutuko duela.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	0,3	0,3
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	0,5	0,4
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	0,2	0,1
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	0,3	0,1
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	-1,1	-0,1
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	3,1	0,3
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	-4,1	-0,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA



Horiek horrela, otsailean, KPI indizeak berriro ere beheranzko joera hartu zuen, urtarrilean gora egin ondoren (%0,6). Hileko horretan, amaiera eman zitzaion bederatzi hilabetez jarraian tasa negatiboak jasotzeari, Filomena depresioak ekarritako hotz boladaren ondorioz elektrizitateak gora egin zuelako. Dagoeneko adierazi den bezala, batez ere erregaiak izan ziren prezioek gora bultzatu zutenak, nahiz eta jarduera ekonomikoak pandemiaren aurreko ohiko erritmoa berreskuratu gabe jarraitu. Hori guztia dela eta, garraio tal-

deak gora egin zuen gehien aurreko hilabetearekin alderatuta, puntu bat eta bederatzi hamarren. Igoera horrekin batera, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea ere igo zen (%2,2). Aitzitik, etxebizitzek ia bost puntu egin dute behera, eta urte arteko tasa gehien murriztu duen taldea izan da, argindarraren merkatzearen ondorioz. Era berean, aisialdian eta kultura beherakadak izan ziren, pakete turistikoa gutxiago garestitu zirelako, bai eta hoteletan, kafetegietan eta jatetxeetan ere, sektore horretako murrizketen ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko otsaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,3	0,0	0,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	1,6	0,8
Edari alkoholik gabekoak eta tabakoa	0,1	0,2	3,5
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	0,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-1,2	-1,1	0,5
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,5	0,8
Osasuna	0,3	0,5	0,2
Garraioa	-0,9	-1,2	0,4
Komunikazioak	-3,5	-3,5	-1,3
Aisia eta kultura	-0,9	-0,4	1,9
Hezkuntza	0,6	-0,2	0,1
Jatetxeak eta hotelak	0,9	0,0	0,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,2	0,9	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



ENPRESEN KONFIANTZA

Ekonomia jarduera berriro aktibatu da Eurogunean


PMI indize konposatuak adierazten duenez, martxoan Euroguneak jardueraren hazkundeari ekin zion berriro, lau hilabeteko ahultasunaren ondoren. Hala, indize hori, BPGaren adierazle aurreratutzat jo ohi dena, 52,5era igo zen, uztailetik izandako daturik altuena baita. Aurreko buletinetan adierazi den bezala, alde nabarmena dago sektore bakoitzaren bilakaeran. Alde

batetik, manufakturek ezohiko indarra erakusten dute eta 63,0 mailara iritsi ziren, 1997ko ekainetik erregistratu den baliorik baikorrena. Bestalde, zerbitzuek bilakaera apalagoa izan dute, pandemia kontrolatzeko ezarritako mugikortasuneko murrizketek kaltetuta, eta 48,8an kokatu dira, beherakada txiki bat izan dutela adieraziz.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2021EKO MARTXOA:


52,5




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Egoera ekonomikoa bikaina da Alemanian, herrialde hartako adierazlea 56,8ra iritsi baita, eta 2018. urtearen hasieratik jasotako erregistro guztiak gainditu ditu. Frantziak, berriz, dezente hobetu du bere posizioa, eta, nahiz eta oraindik jaitsiera eremuan dagoen (49,5), hedapen eremutik geratu dago.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuen susperraldia oso deigarria da, 49,6tik 56,6ra igaro baita hilabete bakar batean, herrialdearen txertaketa erritmo azkarrari esker. Indarra are handiagoa da AEBetan (59,1), txertaketak eta administrazio berriaren gastu planek lagunduta. Azkenik, Japonian oraindik ere ikusten da nolabaiteko ahultasuna (48,3).


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit.




ENPLEGUARI BURUZKO IGURIKIMENAK

Enpleguari buruzko igurikimenak nabarmen hobetu dira martxoan

ENPLEGUAREN IGURIKIMEN INDIZEA EUROGUNEA

2020ko MARTXOA

97,7




Europako Batzordeak enpleguaren igurikimenean indizearen martxoko datuak ezagutarazi ditu. Adierazle horren arabera, hilabete horretan hobekuntza handia gertatu da Europako herrialdeen multzoan. Zehazkiago adierazita, Euroguneko indizea otsailean 90,9 izatetik martxoan 97,7 izatera igaro da, ia zazpi puntuko hobekuntza. Europar Batasunean, oro har, hobekuntza 91,9tik 98,0ra doa. Egia da oraindik ere ezkortasuneko puntu bat dagoela, ez baita lortu aldagaiaren batez besteko historikora itzultzea (100), baina gogoratu


behar da pasa den apirilean jaso zen balioa 60 baino pixka bat handiagoa izan zela bi eremu horietan.

Alemania 100eko muga gainditzea lortu duen herrialdeetako bat da, baina oso modu arinean (100,2). Herrialde horretan, adierazlearen gorabeherak beste herrialde garrantzitsu batzuetakoak baino txikiagoak izan ohi dira. Frantziaren kasuan, ibilbide luzea egin behar da gaur egungo 92,4tik batezbesteko historikoa gainditu arte, nahiz eta adierazlea lau puntu luze igo den hilean.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ALEMANIA




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Espanian ere bilakaera ona hauteman da, baina adierazlean ez da joera argirik ikusten. Izan ere, joan den ekainetik aurrera 85 eta 95 puntu artean baitago kokatuta, martxoko datua 94,5koa izan delarik.

Herbehereetako kasua Alemaniakoaren antzekoa da, apirilean indizeak beherakada txikia izan zuelako eta gaur eguneko susperraldia 100,5era iritsi delako, kutsatzeen bigarren olatuaren kaltea gainditu ondoren.


ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ESPAINIA



ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK, HERBEHEREAK




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. BELGIKA



Belgikak baikortasuna pixkanaka berreskuratzen ari delako irudia erakusten du, apirilean jasotako puntu baxu bateatik (66,6) aurtengo martxoan lortutako 101,4ra arte. Azkenik, Portugalen kasua ez da aurreko herrialdeena bezalakoa, zeren eta bizkorrago suspertu baita, nahiz eta gero baikortasun eta ezkortasun txiki batzuen artean mugitu den, eta orain 103,2 puntuko maila esanguratsu batean kokatu da, Europako handienetako bat baita.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. PORTUGAL




Iturria: Europar Batzordea.

ELGEk txertaketa erritmoaren mende jartzen du susperraldia

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Covid-19aren aurkako txertaketa kanpainen garapenak, ekoizpenak eta hedapenak, eta pizgarri fiskalerako neurri berrien iragarpenak, bereziki AEBetan, eta ekonomiak pandemiaren azken olatuak geldiarazteko ezarritako murrizketetara hobeto egokitzeak aukera eman diote ELGERi bere aurreikuspen ekonomikoak gorantz berrikusteko, ia modu orokorrean.


Zehazkiago adierazita, martxoko txostenean, erakundeak aurreikusten du munduko BPGa %5,6 haziko dela 2021ean, hau da, 1,4 puntu hobetuko dela aurreko abenduko aurreikuspenekin alderatuta, eta hiru hamarren goratu duela 2022rako, azken hau %4,0an kokatu arte.

ELGEREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Munduko ekonomia	-3,4	5,6	4,0	1,4	0,3
AEB	-3,5	6,5	4,0	3,3	0,5
Eurogunea	-6,8	3,9	3,8	0,3	0,5
Alemania	-5,3	-3,0	3,7	0,2	0,4
Frantzia	-8,2	5,9	3,8	-0,1	0,5
Italia	-8,9	4,1	4,0	-0,2	0,8
Erresuma Batua	-9,9	5,1	4,7	0,9	0,6
Kanada	-5,4	4,7	4,0	1,2	2,0
Japonia	-4,8	2,7	1,8	0,4	0,3
Txina	2,3	7,8	4,9	-0,2	0,0
India	-7,4	12,6	5,4	4,7	0,6
Brasil	-4,4	3,7	2,7	1,1	0,5

AEBETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

EUROGUNEKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

ALEMANIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Hala ere, ELGEk badaki proiektzioak txertaketaren abiadurak baldintzatzen dituela, eta, beraz, ez ditu baztertzen beste eszenategi batzuk. Hala, mundu osoan txerto eraginkorrak ezartzen azkarrago aurrera eginez gero, murrizketak kentzeko prozesua bizkortu egin daiteke, konfiantza eta gastua suspertu, eta munduko ekoizpena pandemia aurreko mailetara hurbildu. Horrela, 2021eko hazkundearen aurreikuspena %7,0ra eta 2022koa %5,0ra igoko litzateke.

Aitzitik, aurrerapena motelagoa izateak edo txerto-
ei aurre egiten dieten birusaren mutazio berriak agertzeak konfiantzan eragingo luke, gastua motel-
duko luke eta ekonomia ahulduko luke, eta, aldi berean, enpleguen galera eta enpresen porrota areagotuko luke. Kasu horretan, 2021eko susperraldia %4,5era mugatuko litzateke, eta 2022an, berriz, %2,7ra. Horrek, oro har, pandemiaren aurreko irakurketen azpitik mantenduko luke jarduera maila, denbora tarte luze batean.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.



Goranzko berrikusketa munduko ekonomiarentzat

Martxoan, munduko ekonomiarentzat aurkeztu diren eszenategi makroekonomikoen berrikuspenek goranzko joera izan dute, hainbat herrialdetan, bereziki Estatu Batuetan, zerga plangintza garrantzitsuak abian jarri direlako, diru politika oso hedakorra mantendu delako eta ekonomia garatu gehienetan txertaketa egitasmoak garatu direlako. Hori horrela izanda, **ELGEk 1,4 puntutan gorantz berrikusi ditu munduko ekonomiarako aurreikuspenak 2021ean, eta hiru hamarretan, berriz 2022an**. Berrikiago, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) iragarri du aurreikuspenen goranzko zuzenketa bat aurkeztuko duela laster. Nazioarteko erakunde nagusiek, ziurgabetasuneko garai hauetan, oinarrizko eszenategi bat eta, gutxienez, beste eszenategi alternatibo bat aurkezten dituzte, hobe edo txarragoa, txertaketa prozesuaren azkartasunaren eta eraginkortasunaren arabera. Goranzko mugimendu horiek iradokitzen dute aipatutako hiru eremu horietan (fiskala, monetarioa eta epidemiologikoa) hartutako neurriek oinarrizko eszenategian kontuan hartu zirenak hobetzen dutela.

Orobat, martxoa hilabete ona izan da adierazle aurreratuak deitzen direnentzat. Horien artean, adierazgarriena PMI konposatua da, sendotasun handia erakutsi duena garatutako eremu ekonomiko nagusietan. Zehazkiago adierazita, **AEBetan 59,1era iritsi da adierazle hori, Erresuma Batuan 56,6ra igo da eta Eurogunean, berriz, 52,5ean kokatu da, hedapeneko eremuan jada**. Alemanian ere bultzada handia eskuratu du adierazle horrek (56,8). Europako gainontzeko herrialdeetan ere bilakaera ona hauteman da, nahiz eta oraindik uzkuertze eremuan dauden. Frantzia da kasu horietako bat, 49,5ean kokatu baita. Azkenik, Japonia gainerako herrialdeen hobekuntzatik aldendu da eta 48,3an mantentzen da, aurreko hilabeteetan jasotako antzeko maila baita. Ia herrialde guztietan ikusten da aurreko aldizkarietan aipatu den sektore bikoiztasuna. Hala, manufakturako PMI indizea inoizko mailarik gorenetan dago euroaren eremuan. Aitzitik, zerbitzuei kalte egiten jarraitzen diete pandemia kontrolatzeko ezarritako mugikortasun murrizketek.

Era berean, **Europako herrialdeen sentimendu ekonomikoa nabarmen hobetu da martxoan**. Adierazle horrek hiru sektore nagusiak hartzen ditu barne, txikizkako merkataritzarekin eta kontsumitzailearen konfiantzarekin batera, eta, beraz, ekonomia osoaren seinale ona da. Bere batez besteko historikoa 100eko balioan kokatzen da eta, ondorioz, zifra horren azpitik (gaintik) egoteak uzkuertze (hedapen) une bat adierazten du. Bada, martxoan, Euroguneak bere batez besteko historikoa zertxobait gaintu zuen, eta 101,0ra iritsi zen, duela urtebete pandemia hasi zenean utzi zuen hedapeneko eremuan. Beste behin ere, herrialde abantailatsuena Alemania da (103,7), eta Frantziak (96,8) eta Espainiak (96,9) hobera egin dute, baina atzerago jarraitzen dute.

Ingurune ekonomikoari buruzko ikuspegi baikorrago hori enpleguaren igurikimenetan ere islatzen da, martxoan nabarmen hobetu baitira. Adibidez, Eurogunean otsaileko 90,9tik martxoko 97,7ra igaro da. Are gehiago, eremu horretako zenbait herrialdek 100 puntuko langa gaintitzen dute, eta horrek nolabaiteko baikortasuna adierazten du enpleguari dagokionez. Hori gertatzen da Alemanian (100,2), Belgikan (101,4), Herbehereetan (100,5) eta Portugalen (103,2), besteak beste. Espero dugu produkzioaren eta enpleguaren aldeko bilakaera udaberriko hilabeteetan indartuko dela, biztanleriaren txertaketak ekonomiari konfiantza itzultzen dion heinean.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2019		2020		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,2	-9,5	2,2	-3,2	-19,5	-7,5	-7,6
Barneko azken kontsumoa	1,9	-7,5	1,6	-3,0	-15,4	-5,9	-5,7
Familien kontsumoa	1,8	-10,7	1,5	-4,8	-20,3	-8,5	-9,1
Administrazioaren kontsumoa	2,2	4,5	2,3	4,1	3,0	3,6	7,2
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,6	2,7	-3,6	-23,0	-11,4	-8,4
Barne eskaria	2,2	-8,5	1,9	-3,1	-17,2	-7,2	-6,4
Esportazioak	0,4	-17,1	1,4	-7,5	-30,1	-15,5	-14,8
Inportazioak	0,4	-15,3	1,0	-7,2	-26,4	-14,8	-12,7
Lehen arloa	3,2	-9,3	5,9	3,5	-6,1	-7,2	-26,3
Industria eta energia	1,3	-11,8	2,2	-3,6	-26,7	-9,5	-7,2
Eraikuntza	3,4	-9,5	2,1	-2,7	-17,9	-9,3	-8,2
Zerbitzuak	2,5	-8,5	2,1	-2,8	-17,5	-6,5	-7,1
Balio erantsi gordina	2,3	-9,3	2,2	-3,0	-19,6	-7,4	-7,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	-10,4	2,3	-5,1	-18,4	-8,5	-9,6
Enplegua	1,5	-8,1	1,2	-2,8	-17,2	-6,2	-6,3

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021				2021	2022
	I	II	III	IV		
BPG	-2,5	17,8	5,9	7,3	6,7	5,7
Barneko azken kontsumoa	-1,6	15,2	4,8	7,2	6,1	4,8
Familien kontsumoa	-3,3	19,1	5,3	8,6	6,9	5,8
Administrazioaren kontsumoa	4,2	4,0	2,9	2,5	3,4	1,9
Kapital eraketa gordina	-2,9	23,1	9,3	7,0	8,4	6,4
Barne eskariaren ekarpena	-2,0	18,1	6,0	7,3	6,8	5,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,5	-0,3	-0,2	0,0	-0,1	0,3
Lehen arloa	2,5	8,2	0,5	9,2	4,9	8,2
Industria	-2,1	27,2	5,1	7,0	8,3	5,3
Eraikuntza	-2,7	14,8	5,6	7,3	5,9	5,0
Zerbitzuak	-2,7	15,9	6,3	7,5	6,4	5,8
Balio erantsi gordina	-2,5	18,2	5,9	7,3	6,8	5,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-2,4	13,8	5,7	7,4	5,9	5,8
Lanaldi osoko lanpostuak	-2,5	14,3	3,4	4,4	4,9	3,2
Landunak (BJA)	-1,9	3,0	2,9	1,9	1,5	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
CEPREDE	7,2	5,7	Laboral Kutxa	7,0	—
Confebask	7,2	—	Funcas	6,1	—
Hispalink (BEGren aldak.)	7,0	5,0	BBVA	5,3	7,5

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2019		2020		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,0	-10,8	1,7	-4,3	-21,6	-8,6	-8,9
Kontsumo pribatua	0,9	-12,4	1,0	-6,1	-24,7	-9,3	-9,4
Kontsumo publikoa	2,3	3,8	2,6	3,5	3,3	4,0	4,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-11,4	0,9	-5,1	-24,3	-9,0	-7,2
- Aktibo finko materialak	2,7	-13,3	0,1	-6,8	-27,9	-10,0	-8,3
- Eraikuntzan	1,6	-14,0	-2,2	-6,3	-25,4	-12,5	-11,5
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	-13,0	3,6	-8,0	-33,3	-6,9	-4,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,6	-1,7	5,0	3,6	-5,5	-3,7	-1,2
Nazio eskaria (ekarpena)	1,4	-8,8	1,0	-4,0	-18,4	-6,7	-6,2
Esportazioak	2,3	-20,2	2,1	-5,8	-38,7	-19,8	-16,3
Inportazioak	0,7	-15,8	0,3	-5,3	-32,6	-15,7	-9,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	IEE	4,5	5,7
Axesor	5,6	5,4	Intermoney	6,7	4,5
BBVA	5,5	7,0	Mapfre Economics	6,1	6,3
Bankia	5,7	6,2	Repsol	5,7	5,2
CaixaBank	6,0	4,4	Santander	6,0	7,0
Cámara de Comercio España	5,9	4,5	Metyis	4,5	5,5
Cemex	5,5	7,0	Universidad Loyola Andalucía	5,6	5,2
CEEM-URJC	6,2	5,0	Consenso (media)	5,9	5,6
CEPREDE-UAM	8,5	5,7	Gobierno (2020-10)	7,2/9,8	—
CEOE	5,4	6,2	Banco España (2021-03)	5,3	1,7
Equipo Económico (Ee)	6,5	4,2	Comisión Europea (2021-02)	5,6	5,3
FUNCAS	5,7	6,3	FMI (2021-01)	5,9	4,7
ICAE-UCM	5,6	5,8	Consensus Forecast (2021-03)	5,7	5,7

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2019		2020		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,2	-3,5	2,3	0,3	-9,0	-2,8	-2,4
Txina	6,1	2,0	5,8	-6,8	3,2	4,9	6,5
Japonia	0,7	-4,9	-1,0	-2,1	-10,3	-5,8	-1,3
Kanada	1,9	-5,4	1,7	-0,3	-12,7	-5,3	-3,2
Europar Batasuna	1,6	-6,2	1,2	-2,7	-13,8	-4,1	-4,6
Eurogunea	1,3	-6,6	1,0	-3,3	-14,6	-4,2	-4,9
Alemania	0,6	-4,9	0,4	-2,2	-11,3	-4,0	-3,6
Frantzia	1,5	-8,1	0,8	-5,6	-18,6	-3,7	-4,9
Erresuma Batua	1,4	-9,9	1,2	-2,2	-21,0	-8,7	-7,8
Italia	0,3	-8,9	-0,2	-5,8	-18,2	-5,2	-6,6
Herbehereak	1,7	-3,8	1,7	-0,4	-9,2	-2,5	-3,0

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2021EKO MARTXOA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	5,7	4,0	2,4	2,2	5,6	4,4
Japonia	2,8	2,3	-0,1	0,5	3,0	2,8
Kanada	5,5	3,8	2,1	1,9	8,0	6,6
Europar Batasuna	4,1	4,0	1,4	1,4	—	—
Eurogunea	4,3	4,2	1,5	1,3	8,8	8,3
Alemania	3,4	3,8	2,0	1,6	6,0	5,6
Frantzia	5,5	3,7	1,0	1,1	9,6	9,1
Erresuma Batua	4,6	5,8	1,6	2,0	6,2	6,0
Italia	4,2	4,0	0,8	0,9	10,5	10,2
Espainia	5,7	5,7	1,1	1,2	—	—
Herbehereak	2,6	3,0	1,5	1,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.